

EAEko aurrekontuak 2019



EH Bilduren
proposamena

Testuingurua

Aurrekontuei buruzko debatea funtsezko debatea da, zalantzarik gabe, gure jendartearentzat nahi dugun eredu sozialaren ikuspegia eta eraikuntza islatzen baititu, eta, horrenbestez, bakoitzak inbertsio publikotik ezinbestekotzat dituen lehentasunak zein diren definitzen ditu. Azken batean, eraiki nahi dugun jendarte eta herrialdea zein diren islatzen dute aurrekontuek.

Uste dugu Eusko Jaurlaritzaren egungo aurrekontuek ez dietela jendearen premiei nahikoa erantzuten, premia horietako zenbait benetan urgenteak izanagatik, eta ez daudela diseinatuta euskal herritarren arazoak errotik konpontzeko. 2019rako kontuek aurrekoen bide beretik jarraitzen badute, ez diete inoiz eraginkortasunez erantzungo jendarte eta herrialde gisa ditugun erronkei.

Baina aurten gauzak asko aldatu dira gure herrialdean. Aurten erreibindikazio sozialeko olatuek gure kaleak hartu dituzte, argi utziz Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan ere ezberdintasun sozialak badirela: pentsiodunek, emakumeek, gazteek edo ontzigintzako industria-sareko langileek ispiluaren aurrean jarri dituzte hainbat urgentzia sozial, guk ekin beharrekoak. Gure zerbitzu publiko eta sozialen premia ahaztu gabe, eta aberastasun-sorkuntza jasangarria alde batera utzi gabe ekonomiaren, lurraldearen eta ekologiaren ikuspegitik begiratuta, uste dugu herritarrek legitimitate osoz eskatzen digutela kalera irtenarazi dituzten gai horiei bizkor eta eraginkortasunez ekin diezaiegula.

Uste dugu herritarren eskaerei erantzuteko ordua dela, herritarrek agindu diguten paperean aritzeko ordua, eta herritar horien exijentziei soluzio benetako, posible eta eraginkorrak eskaintzeko ordua. Testuinguru horretan ari da gertatzen aurrekontuei buruzko debatea, eta honako ikuspegi honetatik ari da lanean EH Bildu: betiere jarrera proaktibo eta konstruktibo batetik aurrekontuei buruzko debate horretan gehiengoaren erreibindikazioak mahaigaineratzeko eta gure herriko gehiengo sozial langilearen bizitza hobetuko duen ongizate soziala eraiki ahal izateko.

EH Bilduren borondatea

EH Bilduk jarrera arduratsuarekin eta gure herriaren sektore kalteberenekiko konpromisozko jarrekin ekiten dio aurrekontuei buruzko debate honi. Helburu hori lortzeko, eskua luzatzen dio Eusko Jaurlaritzari eta berau osatzen duten alderdiei EH Bilduk, eta jarrera arduratsua izateko konpromisoa hartzen du jendarteak planteatzen dizkigun eskaerak posible egiteko, aurrekontuetan egoki jasoaz.

Nahitaez azpimarratu behar da lortu nahi dugun eredu sozial justu, berdintasunezko eta demokratikoak beste mota bateko politikak beharko lituzkeela, eta, horrenbestez, oso bestelako aurrekontu-proiektu bat. Uste dugu hori posible izateko aldaketa eta zuzenketa estrukturalak beharko liratekeela gobernu honen kontuetan. Hauek ez dira eta ez dira izango ere EH Bilduren aurrekontuak, eta horrenbestez, ez ditugu babestuko lortu nahi dugun berdintasuneko jokalekuari oinarri-oinarritik erantzuten ez dieten kontu batzuk.

Baina kontziente gara halaber ekitaldi honetako kontuek marjina garrantzitsua eskaintzen dutela lehenengo neurriei modu urgentean ekiteko eta, gobernuaren politikak zuzenduz, gure jendartearen sektore behartsuenek bizi duten egoera prekarioa hobetzen hasteko, hala nola pentsiodunen, emakumeen eta gazteen kasuan.

Horregatik guztiagatik, EH Bilduk Eusko Jaurlaritzari eta berau sustengatzen duten indar politikoei eskaintzen dio aurrekontuak ahalbidetzea eskaera horiei, jendeak kaletik helarazten dizkigunei, argi erantzuten bazaie. EH Bildurekin lortutako akordioaren bidez gauzak zuzentzen hasteak politika horiek norabide onean jartzea esan nahi du. Jokaleku horretan aritu behar badugu, EH Bilduk konpromisoa hartzen du aurrekontu horien onarpena errazteko gure legebiltzar-taldearen bi abstentzioren bidez.

Euskal herritarren eguneroko jarduna eraginpean hartzen duten politiketan eragiteko bere gaitasuna erabiltzen duen ezker baliagarria da EH Bildu. Gure herriko sektore herritarren aldarrikapenak konpartitzeaz gain, hauen mesedetara jarri eta eremu instituzionalera eramateko konpromisoa hartua dugu. Jarrera horrekin hasten dugu debatea, jarrera konstruktibo eta irekiarekin, gehiengo sozialarentzat politika berrietarako bideari hasiera emango dion akordioa lortzeko. Erantzukizuneko eta borondate politikoko kontua da jokaleku berri hori posible izatea eta puntu horretan, erantzukizun horretan, kokatzen da aurrekontuei buruzko gure proposamena.

Esparru ekonomikoa **+702.261.376€**

Aurrekontu-proiektuaren artikulazioan esku hartzen duten edo esku har dezaketen baldintza ekonomiko guztiak hartu ditu kontuan EH Bilduk. Lanean ari garen esparru ekonomikoa, horrenbestez, egungo errealitate ekonomikoari egokitzen zaio eta 2019ko ekitaldirako aurrekontu-gaitasunaren barruan kokatuta dago.

Oinarri horrekin, aurkezten dugun proposamena bideragarria, errealista eta aurreikusitako inbertsio-mugen arabera da erabat. Era berean, aurkezten ditugun proposamen guztiak juridikoki eta ekonomikoki bideragarriak dira, gure eskumenen arabera eta aurrekontu-proiektuari lotutakoak.

HERRI DIRUBIDEEN EUSKAL KONTSEILUA **+631.718.656€**

2018ko diru-bilketa datuak eta 2019rako aurreikuspenak eskaini zituen Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak. 2019ko ekitaldirako Eusko Jaurlaritzari egingo zaion ekarpenaren aurreikuspena ere onartu zen. Diru-bilketa zein Eusko Jaurlaritzari egin beharreko ekarpenaren aurreikuspena positiboak dira, aurreikusitako aurreikuspenak baino handiagoak. Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak ekarritako datuak hartzen ditu erreferentziatzat EH Bilduk, eta esparru horren barruan kokatzen ditu proposamen guztiak.

2019ko aurrekontuak egiteko, eta diru-bilketaren aurreikuspena kontuan izanda, 10.155.064.569 euroko ekarpena dauka Eusko Jaurlaritzak, hau da, 631.718.656 euroko gehikuntza 2018ko ekitaldiarekin alderatuta. Uste dugu herritarrentzat lehentasunezkoak diren inbertsioetara bideratu behar dela gehikuntza hori.

ZORRA **-70.542.000€**

Zorra lehentasunez ordaintzea EH Bilduk partekatzen eta babesten ez duen printzipioa da, uste baitugu herritarren premia sozial eta ekonomikoek betiere aurretik joan behar dutela. Jendartearen mesederako diren politika berriak aktibatzeko inbertsio-gaitasuna badago, ez genuke ulertuko soberakin hori zorraren zati albait handiena amortizatzeko bideratzea, zehazki nahitaezkoa den diru-kopuruaz haratago.

Eusko Jaurlaritzak hartutako zorraren azken urteotako bilakaerari jarraikiz, eta azken urteotan kontzeptu horretara bideratutako gastua kontuan izanda, aurtengo aurreikuspena da Eusko Jaurlaritzak diru-kopuru zatitu txikiagoa zor duela zorra ordaintzeko.

Aurreikuspen horren arabera, aurten ordaindu beharreko diru-kopurua 1.276.232.000 euro litzateke, hau da, aurreko ekitaldian baino 70.542.000 euro gutxiago.

DEFIZIT-MUGA

Espainiar Estatuko Gobernuak aurreikusitako defizit-mugaren bi hamarreneko gehikuntza onartuz gero, EAEk 150.000.000 euro gehiago izan ahalko ditu, Eusko Jaurlaritzaren bozeramaileak ezagutzera emandako aurreikuspenaren arabera. EH Bilduk ez du diru-kopuru hori kontuan hartu esparru ekonomiko berria definitzean, baina uste du kontuan hartzeko moduko faktorea dela.

Aurrekontu-proposamena

420.000.000€

PENTSIONAK

Gutxieneko 1.080 euroko pentsiorantz aurrera egiteko borondatea

Lehen mailako jardun-eremutzat hartzen ditugu pentsioak. Ezin dugu duin bizitzeko ematen ez duten pentsioekin jarraitu. 1.080 euroko gutxieneko pentsioak lortzea da EH Bilduren azken helburua, ka-lean milaka pentsiodunek eskatzen duten Europako Gutun Sozialaren norabideari jarraikiz.

Helburu hori progresiboki lortu beharko da eta horretarako tresna berriak beharko ditugu eskaera hori juridikoki eta finantzarioki bideragarri egiteko. Horretarako uste dugu beharrezkoa izango dela finantzaketari eta zerga-ereduari buruzko debategiari ekitea, eta horrekin batera, helburu horretarako gure auto-gobernuak eskaintzen dizkigun tresnei buruzkoari eta hori lortzea ahalbidetuko diguten zintzilik dauden transferentziei buruzkoari ere bai, baita gutxieneko soldadari buruzko debategiari ere, guztiak ere beharrezko oinarriak baitira pentsioen duintze progresiboa ziurtatzeko.

EH Bilduren azken borondatea hori izanik, 2019ko aurrekonturako pentsio txikiaren zenbatekoaren gehikuntza inbertituz planteatzen dugu bide hori hastea, lehentasunez sektore behartsuenetan, hala nola alarguntza-pentsioak kobratzen dituzten emakumeen kasuan. Uste dugu ekitaldi honetarako pentsioetako inbertsioari eutsi egin beharko zaiola eta datozen ekitaldietan handitu. Horixe da gure borondatea, eta Eusko Jaurlaritzarekin eta berau sustengatzen duten alderdiekin borondate hau partekatzea espero dugu.

Pentsio txikien zenbatekoa gehitzea, alarguntza-pentsioekin hasita 350.000.000€

Tarte txikienetako pentsioen zenbatekoak gehitzeko 350M inbertitzea proposatzen dugu, pentsio horiek bereziki alarguntza-pentsioak hartzen dituztelarik eraginpean. Inbertsio hori ez da nahikoa adierazitako helburua lortzeko, baina bai milaka eta milaka pentsiodunen bizitza materiala hobetzeko.

Aurrekontu-gaitasunaz jabetuta, datu guztiak aztertzea proposatzen dugu, beharrezkoa den inbertsioaren egiazko proiektio bat egitea eta gehikuntza tarte gehitzen hastea, bideratutako zenbatekoa agortu arte, Europako Gutun Sozialak ezartzen duen norabidean aurrera eginez jarraitzeko helburua ahaztu gabe. Datu guztiak aztertzea eskatuko du horrek, bai Gizarte Segurantzarenak, bai hemen gertatzen diren jardunenak.

Gure autogobernua eta eskumenak erabiltzea

Euskal Autonomia Erkidegoak eskusiban aitortua du asistentzia sozialari buruzko eskumena, (Gernikako Estatutuaren 12. zenbakiaren 10. artikulua). Oinarri horren gainean artikulatuko dira laguntza sozial bidezko mekanismoak pentsio txikiak osatzeko.

EH Bilduk proposatzen du Lanbidek kudea ditzala pentsioei buruzko neurriak, neurri horien garapenaz eta kudeaketaz eskusiboki arduratuko den Unitate Espezializatu bat sortuta. Aurtengoari begira, eta bizkor ibiltzea eskatzen duten neurriak direnez, prestazio hauek martxan jartzeko biderik eraginkorrenak aztertuko ditugu, betiere hori ahalbidetuko duten beharrezko aldaketak egiteko Eusko Jaurlaritzak dituen mekanismoak erabilia.

Informazio eta asistentzia kanpaina

Eusko Jaurlaritzak prestazio hauek jasotzea posible duten pentsionista guztiek informazio eta tramitazioarako beharrezko arreta izan dezaten, informazio eta zuzeneko arretarako kanpaina bat abian jarriko du. Ahalik eta zabalpen handiena lortzeko helburuarekin, kanpainak beharrezkoak izango diren kanal guztiak probestuko ditu, pentsionisten elkarteekin elkarlana burutuz.

ENPLEGUA

Europako testuinguruan hainbat adierazle ekonomikotan EAEko datuak onargarriak izan arren, enpleguaren ingurukoak, kuantitatiboak zein kualitatiboak, eskasak dira oso. Jendartearen kezka nagusia den arlo estrategiko honetan **egungo distortsioa zuzentzea** eta aurrera pausuak ematea premiazkoa da, **inertziak gaindituz**, eta politika publiko esanguratsuen bidez **lidergo eta ekimena garatuz**.

Ekimen horren helburu nagusia **kalitatezko enplegua sustatzea** izan behar da ezinbestean, bazterkeria eta bereizkeriarik gabe lan-baldintza bidezko eta egokietan oinarritzen dena, eta hedatuta dagoen egiturazko prekaritateari **erantzun irmoa** eskaintzen duena. Eta hau guztia **ikuspegi feministan** oinarrituta eta **bestelako ekonomiaren adierazpen** ezberdinak lehenetsiz. Ahalegin horretan ulertu behar dira EH Bilduk jarraian aurkezten dituen proposamenak, sendoak, egingarriak eta bide berriak urratzen dituztenak.

Gazteak kalitatezko enplegua eskuratzeko talka plana

20.000.000€

Pairatzen duten egiturazko prekaritateari aurre egiteko, neurri zehatzak betetzen dituzten enpresen eta beste antolakunde ekonomikoen kontratazio berriak gauzatzeko laguntza lerroa indarrean jartzea. Ekonomia sozialeko antolakundeak eta enpresa txiki eta ertainak lehenetsiko dira, eta sektoreka, estrategikoak diren trantsizio ekologiko eta teknologikoa, berrikuntza sustatzen dutenak. (Aho batez onarturiko Legebiltzarreko ebazpenari bidea emanez).

- **Proposamen zehatza:** kontratu mugagabeak, 3 urte mantentzeko konpromisoa, bertako hitzarmen pean eta, edozein kasutan, 1.200 euroko langa gainditu
- **Onuradunak:** 5.000 gazte
- **Diru-laguntza:** 4.000 euro
- **Diru-partida:** 20 milioi

Belaunaldien elkartasuna bideratzeko plana

20.000.000€

Egun eta datozen urteotan eman behar den langileen erreleboa era ordenatuan eta eraginkorrean gauzatzeko, langabezia eta prekariedade-maila handiena pairatzen duten giza-taldeak -batez ere gazteak, emakumeak eta iraupen luzeko langabetuak- kalitatezko enpleguaren bidez laneratzeko laguntza lerroa indarrean jartzea. (Aho batez onarturiko Legebiltzarreko ebazpenari bidea emanez).

- **Proposamen zehatza:** kontratu mugagabeak, 3 urte mantentzeko konpromisoa, bertako hitzarmen pean eta, edozein kasutan, 1.200 euroko langa gainditu.
- **Onuradunak:** 10.000 gazte, emakume, langabetu
- **Diru-laguntza:** 2.000 euro
- **Diru-partida:** 20 milioi

Iraupen luzeko langabetuak egoki artatzeko neurri sorta**10.000.000€**

Laneratzeko zailtasuna bereziak dituen pertsonen erreskatatzeko apustua, garapen agentziekin eta egungo orientazio sistema osoarekin elkarlanean eta tokian tokiko errealitatea erreparatuz, bana bako arreta, prestakuntza, orientazioa, bitartekaritza eta laneratzeko aukerak bereziki zainduz. Enplegu Planen egungo egitura aldatzea, arreta egoki eta iraunkor hori ziurtatzeko. (Aho batez onarturiko Legebiltzarreko ebazpenari bidea emanez).

Proposamen zehatza: protokolo berezia indarrean jartzea, langabe bakoitzari arreta jarraitua bermatuko duena. Arreta hori ziurtatzeko baliabideak. Programa berriak eta espezializatuak prototipatu eta testatzeko baliabideak. Ikuspegi sozio-ekonomikotik kaltetuenak diren inguruak lehenetsita. Enplegu Planak indartu kontratazioaren kalitatea bermatuz eta horren iraupena luzatuz, laneratzeko sarbidea errazteko eta, edozein kasutan, pertsonaren oinarritzko baliabideak ziurtatzeko.

- **Diru-partida:** 10 milioi

Enpresetan soldata arrakala murrizteko neurriak**4.000.000€**

Enpresetarako berdintasun-ziurtagiri bat sortu, orokortu eta iragartzea, administrazio publikoan kontratazio publikorako eta laguntza eta subentzioak jasotzeko pixkanaka derrigorrezkoa izango dena. Berdintasun planak enpresa guztietan egiteko laguntzak, eta 50 langiletik gorako enpresetan langileen ordezkariekin horiek hedatzeko konpromisoa hartzea. Sinatutakoa betearazteko bitartekoak.

- **Diru-partida:** 4 milioi

Zaintza demokratizatu eta duintzeko neurri sorta**4.000.000€**

Zaintzaren esparruaren aitortza eta zaintza lanetan ari diren emakumeen lan-baldintzen kalitatea hobetzera bideratutako neurriak. Tartean, zaintza lanak egiteagatik eszedentzia hartu edo lanaldia murrizten duten langileentzako prestazioetan etxeko langileak espresuki sartzea, arlorako osasun-gida eta egokituriko prestakuntza etxeko langileen esku jartzea, mendekotasuna duten pertsonen zaintza lanetan ari diren emakumeak ekintzailetza kolektiboaren bidean jartzeko programa bat, prestakuntza, aholkularitza espezializatua, tutoretza, asistentzia tekniko-juridikoa, laguntza ekonomikoak eta bazkietzarako baliabideak aurreikusten dituenak.

- **Diru-partida:** 4 milioi

Ekintzailletza kolektiboa sustatzeko plangintza**5.000.000€**

Gazteak eta emakumeak bereziki ekonomia sozialeko adierazpideetarako sarbide kolektiboa babestea era iraunkorrean -ekonomia alternatibo eta solidarioa bereziki bultzatuz-, laguntzak eta jarraipena ziurtatuz, digitalizazioan arreta berezia jarritz, eta helburu horietara bideratutako prestakuntza, aholkularitza espezializatua, tutoretza, asistentzia tekniko-juridikoa, laguntza ekonomikoak eta bazkide-tzarako baliabideak eskainiz.

- **Diru-partida:** 5 milioi

Ekonomia zirkularra sustatzeko plangintza**1.500.000€**

Eredu produktiboaren trantsizioa finkatzeko estrategikoak diren hainbat esparrutan kalitatezko lan-postuak sortzeko diru-laguntza lerroa, ekonomia sozialeko antolakundeen bitartez, eta kontratazioko klausula sozialen bidez.

- **Diru-partida:** 1,5 milioi

Talentua aberriratzeko plangintza**1.500.000€**

Beste erakunde publikoekin elkarlanean, bereziki industrian eta digitalizazioan espezializatuak diren eta azken urteetan beren lan jarduera atzerrian garatu dituzten langileak erakartzeko eta bertan finantzatzeko neurri sorta, gazteei eta emakumeei arreta berezia eskainiz.

- **Diru-partida:** 1,5 milioi

Doktoretzarako ikertzaileen prestakuntza bekak indartzeko plangintza**1.000.000€**

EHUrekin elkarlanean, bekak duintzea eta ikerketa sektorean kalitatezko enplegua lortzea helburu izango dituen neurri sorta abiatzea.

- **Diru-partida:** milioi 1

Enpresa eredu berria sustatzeko neurriak

1.000.000€

Enpresa demokratizatzea eta horretan langileen informazio maila, antolakuntza, erabakimena eta parte-hartzea –emaitzetan zein kapitalean- ahalbidetzeko, lehenengo esperientziak abiatzeko jarduketan plan integrala, laguntza ekonomikoa jasoko duena. (Aho batez onarturiko Legebiltzarreko ebazpenari bidea emanez).

- **Diru-partida:** milioi 1

Enpresen jarduera langileen esku jarraitzea babesteko neurriak

2.000.000€

Hainbat arrazoi tarteko (eskualdatzeak, itxi edo porrot egitea..), enpresen jarduera langileen esku jartzeko protokolo berezia indarrean jartzea, Jaurlaritzak bere tresneria eta bitarteko guztiak langileen esku jarritz (aholkularitza juridikoa, planifikazio estrategikoa, diru-laguntza lerroak, bazkidetzarako baliabideak...), beharrezko laguntza eta jarraipen iraunkorra bermatuz.

- **Diru-partida:** 2 milioi

